

Banka-negoioari lotutako aldagai guztiak hobetu ostean lortu da emaitza, baliabide digitalen bultzadarekin

Kutxabankek 332 milioi euroko irabazia lortu du 2018an, %10 gehiago

- **Laugarren urtez jarraian, sistema osoan kaudimen onena duen Bankua da, bere negozio ereduaren iraunkortasunaren eta erresistentziaren erakusle**
- **Berankortasun tasa %3,86an kokatu da, alorreko txikienetakoa, zalantzezko aktiboak ia 500 milioi eurotan murriztu eta gero**
- **Mailegu-inbertsio produktiboa bere onera itzultzen ari da. Mailegu hipotekarioak %22,6 hazi dira, %12,3 ETEen finantzazioa eta %20 kontsumorako maileguak**
- **Akziodunen Batzar Nagusiari dibidenduaren banaketa %50ean mantentzea proposatu dio, 166 milioi euro guztira, 549 milioi euro azken lau urteetan**

2019ko martxoaren 2an. Kutxabank Taldeak 2018. urtearen amaieran **332 milioi** euroko irabazi trinko garbia lortu du, aurreko urtean baino **%10 gehiago**, Cajasurrek **19,5 milioi** euroko ekarpena egin ondoren.

Emaitza hauek Zuzendaritzako taldeak gaur Bilbao Exhibition Centren egin duen bileran aurkeztu dira. Bilkura horretan, Gregorio Villalabeitia Presidenteak eta Javier Garcia Lurueña, Kontseilari Delegatuak, iazko urteari dagozkion arlo nagusiak eta aurtengo ekitaldian Erakundeak dituen funtsezko erronkak aztertu dituzte.

Gregorio Villalabeitiak oso baikor iritzi dio Kutxabankekin izan duen 'performanceari', batik bat ekonomiak moteltze zantzuak izan dituen testuinguruan, interes tipoak negatiboan egonkor izanik, merkatuei lurrunkortasuna eman dieten tentsio geopolitikoaren erdian, eta ikuskaritzako agenda mardularekin.

Baldintza hauetan, Taldeak lortu duen emaitzaren **sendotasun iraunkorra** goretzi du. Presidenteak, **hazkunde** hori batik batik 'core' negozioan eta zorrodun bezeroen hazkundera oinarritu baita, **errentagarritasunaren** bilakaera positiboan, eta berankortasun tasak eta kaudimen mailak izan duten **kemenean**.

Kaudimenaren haritik, Villalabeitiak gogora ekarri du Europako Banka Agintaritzak laugarren urtez jarraian aintzatetsi duela Kutxabank sistemako lehen erakundea, eta Europako Banku Zentralaren estres frogetan ere buru izan dela. Aurkako baldintzen balizko testuinguruan eragin txikiena jasango lukeen bankuen artean da, eta horrek erakusten du, Kutxabankeko Presidentearen ustetan, bere negozio ereduak dituen **iraunkortasuna eta erresistentzia**.

Gogoratzekoa da Europako Banku Zentralak eginiko SREP azterketaren arabera, Kutxabank dela espainiar Estatuan arrisku profil txikiena duen finantza-erakundea, **kapital eskakizun txikienak** izateaz gain, maila goreneko kaudimenean ezarritako mugaren gainetik **soberakin handiena** baitu.

Taldeko **Kontseilari Delegatuak** azken lau ekitaldietan Kutxabanken bilakaeran erabakigarriak izan diren giltzarriak aztertu ditu.

Adierazle nagusien artean goretsi ditu Bankuak **kapitala era organikoan sortzeko** izan duen gaitasuna –alorraren batez bestekoa baino hamar aldiz handiagoa–, **berankortasun maila %10,35etik egungo %3,86ra murriztu** izana, edota **errentagarritasuna (ROE eta ROA) eta emaitzak bikoiztu** izana.

Esan duenez, bilakaera horretan erabakigarriak izan dira **lotura maila handiagoa** duten bezeroen hazkundea –marjina garaiagoa ematen duten bezeroen kopurua bikoiztu egin da–, eta **bezero digitalen gorakada**, Marjina Gordinaren %57 sortzen baitute.

Oinarriko negozioaren hazkundea

2018ko emaitzaren hazkundea bezeroen negozioari lotutako aldagarri guztien hobekuntzan oinarritu du Kutxabankek. Horretarako ezinbestekoak izan dira finantza **produktu berrien kontratazioaren hazkundea**, **aseguruen negozioaren** dinamismoa, balantzetik kanpoko produktuetan **beregantze garbien** bilakaera positiboa, eta **lotura maila handiagoko bezero digitalen** gorakada.

Horrekin guztiarekin **'core' sarrerak** –Finantza Marjinak eta zerbitzuen edota aseguruen sarrerak osatutakoak– **%2** hazi dira, guztira **1.057 milioi** eurora arte.

Palanka hauei, **inbertsioen zorroa** balioan ipintzeak sortu duen ekarpena, **kostuetan ohiko zuhurtziazko politika**, lehenetasuna eraginkortasuna izanik, eta ohiko **zuzkiduren behar txikiagoa** gehitu zaizkie, azken hau **arriskuaren kalitatea hobetu** eta gero.

Kutxabanken emaitza giltzarriak 2018an



Emaitzen kontua

Interesen Marjina bigarren urtez jarraian hobetu egin da, nahiz eta urte bateko Euriborrak urtea %-0,129an itxi zuen. Hobekuntza hori finantza-gastuen murrizketan eta finantza-sarreraren egonkortzean oinarritu da.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2018ko abendua

Miloi Eurotan	2018 abendua	% Δ
Interesen Marjina	561,3	0,5
Komisioak eta aseguruak	495,7	3,6
Banka negozioaren sarrera errepikariak	1.057,0	1,9
Dibidenduak eta baliokidetasunak	74,8	11,2
ROF (*)	7,0	-56,2
Beste Ustiapen emaitzak(*)	-50,1	2,6
Marjina Gordina	1.088,7	1,6
Administrazio Gastuak	-595,2	-5,0
Amortizazioak	-55,2	0,4
Ustiapen Marjina	438,3	12,4
Saneamenduak eta narriadurak	-185,1	-57,4
Beste irabazi eta galeren emaitzak (**)	153,3	-53,0
Zergak eta bestelakoak	-74,2	n.s
Taldearen emaitza	332,3	10,0

(*) Aseguruen ustiapeneko emaitzak banka-negoziaren sarrera errepikarrietan sartu dira

(**) Pro-forma birsailkatua IFRS9 indarrean sartzean konparatzeko


Zerbitzuen sarrerak **%3,6** hazi dira, eta **495,7 milioi eurora** iritsi dira, hein handi batean balantzetik kanpoko produktuetan lortu den bereganatze garbien bilakaera onarengatik, zerbitzuen eta ordainbideen komisioen hobekuntzarengatik, eta aseguruen jarduerari lotutako emaitzengatik. Aseguruen negozioak izan duen hazkundea aipatzekoa da, **136 milioi** euroko ekarpena izan baitu Marjina Gordinean, **%10** handiagoa.

Gastuak **%4,6** murriztu dira

Partaidetuen zorroa beti bezain sendo aritu da, eta negozioaren iraunkortasunari bere ekarpena egin dio. Partaidetuen zorroko sarrerak **%11,2** hazi dira, **74,8 milioi** eurora arte.

Bestelako Ustiapen Emaitzak epigrafeak Gordailuen Bermerako Fondoari eta Erresoluzio Fondoari bideratutako zenbatekoak jasotzen ditu, 2018an 58 milioi eurora arte hazi baitira.

Ustiapen Gastuak (Milaka)



Aipatu den jarduera komertzial biziak **Marjina Gordina 1.088,7 milioi** eurora arte igoarazi du, 2017an baino **%1,6** gehiago. Hobekuntza hau negozio errepikariari esker lortu da.

Ustiapen gastuak eusteko irizpideak bere horretan mantendu dira eta **%4,6** txikitu dira, gastuak murrizteko eta baliabideak optimizatzeko politikek duten eraginkortasunaren erakusle, eta erakundearen lehentasun estrategikoetako bat eraginkortasuna izanik. **Pertsonaleko gastuak** iazkoaren aldean **%3,4** jaitsi dira, azken bi ekitaldietan langilegoa arrazionalizatzeko hartu diren neurriengatik. Horri **gastu orokorren murrizketa** aipagarria gehitu zaio, **%8,6**koa, eta **amortizazioak %0,4** hazi dira. Oro har, **eraginkortasun indizea %56,3an** kokatu da.

Mailegu zorroaren eta beste aktiboen **saneamenduen beharrei** dagokienez, arrisku hauen kalitatea hobetu den arren eta aurreko urteetan egin diren ahaleginen ondoren, mailegu-arriskua estaltzerakoan zuhurtzia goreneko irizpideak mantendu dira. Horrela, banka-negozioa hazi ondoren eta partaideen zorroak emandako babesarekin, zuzkiduretarra bideratutako zenbatekoa aipagarria izan da, **185,1 milioi** euro, eskakizun maila handia duten araudi eta legediei segurtasunez aurre egin ahal izateko.

Kutxabank Taldeak guztira kutxa publikoaren eskuetan 382 milioi euro jarri ditu, kontutan izanik eutsitako eta jasanarazitako zergak, tasak, gizarte segurantzako kontribuzioak, eta gordailuen bermerako fondora eta erresoluzio fondora eginiko ekarpenak.


Sarrera, kostu eta zuzkidura horiek denak aintzat izanik, zergen aurretik lortutako emaitza 406 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino %44 gehiago. Sozietateen zergaren fiskalitatea ezarrita, Taldearen irabazi garbia 332,3 milioi eurokoa izan da, 2017an baino %10 gehiago.

Bere azken bileran, Bankuaren Administrazio Batzordeak urteko emaitzaren gainean **%50eko dibidendua banatzea** proposatu zion Akziodunen Batzarrari, guztira **166 milioi** euro. Azken lau urteetan akziodun dituen BBK, Kutxa eta Vital Banka Fundazioen artean, **549 milioi eurotik gora** banatu ditu.

Berankortasuna 104 oinarrizko puntu erori da

Joan den ekitaldiak berretsi egin du berankortasun-tasak azken lau urteetan Kutxabanken izan duen **etengabeko erorketa**. Zalantzak aktibo berrien sarrerak % 25 jaitsi dira 2017koen aldean, eta zalantzak aktiboaren saldoa ia **500 milioi** euro murriztu da. Horrek hobekuntza ekarri dio, berriz ere, Kutxabank Taldearen berankortasun-ratioari, izan ere, arrisku kontingenteak barne, dagoeneko **% 3,86an** dago, 2017an baino ia **oinarrizko 104 puntu gutxiago** eta sektoreak baino ia 200 oinarrizko puntu gutxiago.

Berankortasun-tasaren bilakaera



Higiezin jarduerari lotutako berankortasuna kenduta, berankortasun-ratioa % 3,51ra murrizten da. Kreditu-kalitatearen mailari finantza-sektorearen batez bestekoaren oso gaineratik eutsi zaiola berresten du horrek guztiak.

Berankortasun-ratioen hobekuntza nabarmenez gain, gainerako kudeaketa-adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak eginda itxi du 2018a Kutxabank Taldeak. Abenduaren amaieran, Taldearen orotarako kaudimen-koefizientea nahiz Core Tier I ratioa % 16,1ean kokatu dira. *'Fully loaded'* bere bertsioan, indize hori % 15,5ean finkatuta geratu da. Palanka-efektuaren indizea, bere aldetik, Estatuako lehendabiziko postuan mantendu da, eta % 8,1en kokatu da, sektorearen batez bestekoaren oso gaineratik.

Funtsezko adierazleak	2017	2018
Berankortasun-ratioa	%4,89	%3,86
ROTE	%6,49	%6,84
ROE	%6,03	%6,37
ROA	%0,53	%0,57
Core Tier I (Phased in)	%15,7	%16,1
CORE TIER I (Fully Loaded)	%15,3	%15,5
Kapital Osoa	%15,7	%16,1
Palanka-efektuaren ratioa	%8,1	%8,1

Zehaztutako helburuei jarraiki, bere errentagarritasun-ratioak hobetzen jarraitu du Kutxabankek. ROE koefizientea, norberaren baliabideen gaineko errentagarritasuna neurtzen duena, % 6,37n kokatu da. ROTE –akziodunek, ukiezinak kenduta, inbertitutako fondoan gainean lortzen duten errendimendua neurtzen duen ROEren bilakaera bat-, bere aldetik, % 6,84an kokatuta geratu da, aurreko ekitaldiaren % 6,49aren aldean.

% 2,8 hazi dira bezeroen baliabideak


Kudeatutako Bezeroen Baliabideak **61.044 milioi** euroraino igo dira, **% 2,8 gehiago**.

Hazi egin dira bezeroen gordailuak, % 4,9, **ageriko gordailuek** izan duten portaera bikainaren laguntzaz, **% 10,8** igo baitira.

Gainera, jarraitu egin du balantzetik kanpoko produktuekiko bezeroen aldeko jarrerak, errentagarritasun erakargarriagoen bila, tasen testuinguru kaltegarrian.

Inbertsio-fondoetara eta pentsio-planetara eta BGAE-etara egindako ekarpenek positiboari eutsi diote, finantza-merkatuen ezegonkortasunak ekarri duen balioespenen bilakaera txarrak, hala ere, partida horiek % 1,7an jaitsi daitezela eragin du. Hegazkortasun testuinguru horretan, batez bestekoaren gaineko jarduera izan du taldeak, eta urtean zehar **harpidetza garbi gehien izan duen laugarren kudeatzailearen** lekuari eutsi dio, eta seigarren postuari inbertsio-fondoan rankingean. Ekitaldi honetan, eginkizun aipagarria izan du, berriz ere, zorroen kudeaketa eskuordetuaren sistemak, funtsezko tresna baita, inbertsio-fondoetan, pentsio-planetan eta BGAE-etan Kutxabank Taldea **sektorearen bosgarren kudeatzailearen** postuan kokatzen duena, eta kudeatutako orotarako ondarea **23.000 milioi** eurotik gora.

Bezereen baliabideen banaketa




Suspertu egin da kreditu-inbertsio produktiboa

Kreditu-inbertsio produktiboa suspertu egin da era egonkorrean, % 0,3 xehekako sareetan, igoera oso esanguratsua baitute kreditu berrien kontratazio erritmoan, xehekako sareen arloan nahiz enpresen sareetan.

Datu aipagarrietako bat **hipoteka maileguen** kontratazioen bolumenaren % **22,6ko** hazkundera da. Gauzatze berrietan gertatu den

igoera hori batez bestekoaren gaintik kokatu da, Kutxabank Taldeak diharduen merkatu guztietan. Bilakaera horrek finkatu egin du bere **hipoteka-kuota esanguratsua** jatorrizko lurraldeetan, eta EA Eren kasuan, % **38tik** gorakoa da dagoeneko.



Kontsumorako maileguen kontratazioak ere % **19,8ko** garapen positiboa izan du, eta bereziki '**Merkataritza Kredituak**', % **30eraino** igo baita, beti ere kredituaren esleipen arduratsuaren ereduari jarraiki. Hain zuzen ere, **kontsumorako maileguetan %1,1eko berankortasun** ratioa du Kutxabank Taldeak, eta negozio-eremu honetan %6koa da finantza-alorrean.

Enpresa txiki eta ertainen segmentuan izan den jarduera handiagoa ETE-en finantzazio berriaren % **12,3ko** hazkunderan islatu da, aktibo finko eta zirkulatzailan igoera garrantzitsua egon baita. Gainera, kontratazio berrien bultzada positibo horrek enpresetarako kreditu-saldoen urtearteko bilakaera positiboa finkatzea lortu du, % 2,5 hazi baita.

Digitalizazioa, apustu tinkoa baino gehiago

Kutxabank Taldeak agenda digital bizia izan du 2018an, eragiketak online egiten dituzten bezeroen kopurua haztea eta produktu giltzarrietan eragiketak eta salmentak bultzatzea helburu.

Zerbitzuen digitalizazioaren alderdi deigarrienetako bat honakoa da, finantzazio-eragiketak online bankaren eta banka mugikorraren bitartez gauzatzen dituen pertsona kopuruak izan duen hazkunde handia.

2018an, Kutxabanken kontratatutako **kontsumorako maileguen % 23** online gauzatu ziren. Jatorria Interneten duten hipoteka maileguk ere gero eta pisu handiagoa dute. **'Flexibuy'** epekako ordainketaren bidez finantzatzen diren txartelez ordaindutako erosketei dagokienez, % **79** baliabide teknologiko berrien bitartez burutu zen.

Gaur egun, Kutxabanken **10 bezerotik ia 4k** ia-ia Internetez baino ez dituzte egiten euren eragiketak, beraz, bezero digitalak dira, eta **Marjina Gordinaren % 57** eurek sortzen dute.

Telefono mugikorra da, alde handiz, banku zerbitzu digitaletara sartzeko gehien erabiltzen dena. 2018an jaso ziren **148,19 milioi sarreretatik –% 28,08 gehiago–**, % 67,45 'smartphone' bidez egin ziren. Erabiltzaileen % 39,06 hatz-marka digitalaren edo aurpegia antzematearen bitartez sartzten dira banka mugikorrean.